



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Mitxitxi marriau**

Egilea / Autor: **Begoña Durruty**

Marrakilaria / Ilustrador: Begoña Durruty

ISBN / EAN: 978-84-9746-681-3

Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA inkluido)

Orri kopurua / N° páginas: 32

Formatua / Formato: 25 x 30 cm

Lana / La obra

Mitxitxi marriau...

Mitxitxi marriau leloa ezaguna da. Aldaketa aunitz ditu bazterretan. Aita Donostiak 1951-n Baztanen hauxe bildu zuen:

Mixi marriau
katuak yan nau,
aitak il nau
amak yan nau
arriba ponpoxak
piztu nau.

"Ipuin luze baten amaiaren hitzak dira. Egiptoko Osiris Jainkoa bere arriba Isisek puskaka bildu, hil-zapian inguratu eta piztu zuenaren antzera, ahozko literaturan aurkitutako mito baten oihartzuna da. Haurra gaztarora aldatzen deneko adierazpen ederraren mezua darama haurtxoaren heriotza." Jose Mari Satrustegi.

Gure etxean Arizkunen, betidanik hola ezagutu dut:

Mitxitxi marriau
Katuek jain hau
Biher edo gaur
Kor, kor, kor, kor
Kor, kor, kor, kor.

Ume txikia altzoan jarri, haren eskutxoak hartu eta hitz hauen eritmoan ferekatzen dugu bere aurpegitxoa edo gerena. Jose Mari Satrustegik egindako lanarengatik dakigu gure geografian arras zabaldua dagoen istorioa dela: Luzaiden, Arruazun, Irunen, Baztanen, Urdiainen...

1965ean, Urdiainen, lelo honek jatorria duen ipuina bildu zuen. Bi lekuko izan zituen eta bakoitzak bere erara moldatu zuen kontakizuna. Nik berriz, beraiek bezala, ipuinaren mamia errespetatzen saiatuz, biak hartu eta nirea egin dut...

Begoña Durruty

ISBN: 978-84-9746-681-3



9 788497 466813

www.erein.com


erein